

123. FITXA Errotze sozialeko (soziolaboraleko) arrazoiengatik egoitza- eta lan-baimenak lortuz, migratzaileak gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide integralen proiektuetarako dirulaguntzak

Nori zuzendua: Udalak, tokiko edo eskualdeko garapen-agentziak eta Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko sektore publikoko beste erakunde batzuk; irabazi-asmorik gabeko erakundeak; merkataritza-ganbera ofizialak; enpresa erakundeak eta elkarteak; baldintzak betetzen dituen edozein pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribatu.

Sarbide-esteka: [Errotze soziolaboralerako ibilbide integralen proiektuak finantzatzeko laguntzak: 1. fasea-ibilbide integralen proiektuak - Eusko Jaurlaritza](#)

Erreferentziatzko araudia: [EBAZPENA, 2025eko apirilaren 10ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, horren bidez argitara ematen baita migratzaileak gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide integralen proiektuetarako dirulaguntzen deialdia, errotze sozialeko \(soziolaborala\) arrazoiengatik egoitza- eta lan-baimenak lortuta.](#)

Eremuak: Enplegua

Zenbatekoa: 3.650.380 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/05/30

Laburpena

Deialdi honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta dauden eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten atzerritarrak **gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide integralei laguntzeko proiektuak** finantzatzeko laguntzak arautzea, 2025erako. Laguntza horiek gizarteratzeko eta laneratzeko erraztasunak emango dituzte, eta aldi baterako bizileku-baimena lortzeko aukera, salbuespenezko arrazoiengatik, gizartean errotuta daudelako (gizarte- eta lan-arloan)- eta, horri esker, baita benetako kontratua lortzeko ere.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Honako ibilbide integral hauek lagunduko dira diruz:

- **1. motako proiektua:** Lanpostuko prestakuntza-programaren proiektua, produkzio-ingurunean konpetentzia profesionalak eskuratzeko laguntza eta tutoretzakoa, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten etorkin parte-hartzaileen administrazio-erregularizazioa errazteko laguntza teknikoa barne. Horretarako, lan-kontratu bat egin beharko da bukaeran, eta kontratu horrek bizileku- eta lan-baimena eskuratzeko aukera emango dio, salbuespenezko zirkunstantziengatik eta errotze sozialarengatik (soziolaboralarengatik).

Proiektu horrek konbinatu beharko ditu aktibazioa, produkzio-inguruneko kualifikazioa eta kontratazioa sustatzeko prozesuak.

- **2. motako proiektua: Gizarteratzeko eta laneratzeko laguntza- eta tutoretza-ibilbide pertsonalizatu**en proiektua da. Horren bidez, jarduerak egingo dira enpresaren eta hautagaien arteko topaguneetan laneratzeko plan pertsonal bateratu bat diseinatuko da. Plan horretan, bi alderdiek konpromisoa hartuko dute beren konpromisoak betetzeko, parte-hartzailea kontratatze behar den administrazio-prozesua ebatzi arte.

Proiektu horrek laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak diseinatu eta gauzatu beharko ditu, beharrezkoak diren prestakuntza- eta gizarte-baliabideen aktibazioa konbinatuta, enpresaren kontratazio-premiak asetzea ekarriko duen enplegarritasun-diagnostiko batean oinarrituta, pertsonaren eta produkzio-sarearen errealitatea kontuan hartuta.